



ONDARROAKO UDALA

1

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/4

Eguna: 2012-05-08

Hasiera-Amaiera: 18:45 - 19:50

Tokia: Batzar-gela 2

## UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

### Batzartutakoak:

---

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Iera Arantzamendi	Udal Euskara lantaldeko kidea
Miren Urresti	EAJren ordezkaria (18:55ean alde egin beharra azaldu du)
Gurutzne Anakabe	Zaldupeko eskolako ordezkaria
Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria
Itxasne Murillo	Txomin Agirre ikastolako ordezkaria
Eduarne Arantzamendi	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irriatiaren eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

### Bertaratu ezina adierazi dutenak:

---

Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
Eladino Gonzalez	Ondarroako Osasun Zentroko arduraduna

### AZTERGAIAK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. Abian jarritako ekintzak:
  - Irakurle klubaren nondik norakoa.
  - Letren Jaialdiko balorazioa.
3. Ebazpen batzordeko ordezkari bi izendatzea euskararen sustapenerako diru-laguntza deialdian parte hartzeko.
4. Eskariak eta galderak.

### Esan-eginak:

#### 2. Abian jarritako ekintzak:

- Irakurle kluba.  
Apirilaren 21ean hasi beharrean maiatzaren 5ean egin da estreinako saioa. Izan ere, lehenengoa bertan behera geratu zen inor ez zelako agertu. Harrezkero, izena emateko aukera zabaldu da kartelen bidez eta liburuzainaren ekimenez eta 6 laguneko taldea osatu da. Ondorengo saioetarako kartel gehiago egingo dira zabalkundea egiteko eta, udazkenetik aurrera, liburuzainaren jarraibideen arabera segituko da antolatzen.
- Letren Jaialdiko balorazioa.



ONDARROAKO UDALA

2

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/4

Eguna: 2012-05-08

Hasiera-Amaiera: 18:45 - 19:50

Tokia: Batzar-gela 2

Idazkariak azaldu du egun horretan gertatutakoa eta antolatzeko izandako eragozpenak, hala nola, udalaren soinu-ekipoarekin eta proiektorearekin izandako arazoak:

Astean zehar antolakuntzako zenbait gauza lotzerakoan sortu ziren arazoak. Besteak beste, udaletxeko proiektorearen bila aritu behar izategatik. Martitzenean behar izan genuen Udaletxean eta ez zegoen; Udaletxetik atera bai, baina inork ez zuen bueltan ekarri, azkenean eskuratu genuen. Baina ekitaldiaren egunean bertan, berriro ere, 7:30etan proiektorea falta zen udaletxean. Proiektorearen bila hasi beharrak kendu zuen denbora gauzak aurretiaz prestatzeko eta, goizean goiz, zinean egon beharrean proiektorearekin probak egiten, handik eta hemendik ezin bilatuta galdu ziren goizeko lehen bi ordu horiek. Gauzak horrela, 9:45ak ziren proiektorearekin sartu ginenerako zine-aretora eta, ondorioz, berandu hasi zen ekitaldia, ikasleak zein irakasleak zain izan genituen eta dena inprobisazioren pean geratu zen lehenengo saioan (LHkoena). Eta larriena izan zen ikasleek grabatutako bideoak ezin izan zirela ondo ikusi. Barkamena eskatu zen ekitaldian, eta orain, azalpen horiek emanda, berriro ere eskatu behar da.

Ekitaldiari berari helduta, idazkariak esan du ikastetxe batzuek bidali dituztela balorazio-orriak beteta. Azpimarratu da ekitaldiaren 2. saioa (DBHkoena), orokorrean, ondo antolatuta egon zela, Iñaki Maruriren klown lana oso interesgarria izan zela irakurraldian zehar atentzioa erakartzeko eta aurkezleen lana oso ondo baloratu da. Hobetzekoen artean, berriz, epaimahaikoen grabazioa ipuin bakoitzarekin batera egin beharko litzatekeela, grabazioen kalitatea eta irakurraldia luzeegia egiten dela.

Horrez gain, Letren Jaialdiaren IV. edizioa antolatzeko batzar bat egitea adostu da ekaina baino lehen.

### **3. Ebazpen batzordeko ordezkari bi izendatzea euskararen sustapenerako dirulaguntza deialdian parte hartzeko.**

Miren Urrestik esan du aldaketa bat dela ebazpen batzorde bat egitea balorazioak egiteko. Orain arte teknikariak egin izan duela lan hori.

Batzordeburuak erantzun dio irizpideak subjektiboak direla eta ahal den argien bideratu behar dela prozeduraren atal hori.

Batzordekideei galdetu zaie ea parte hartu nahi duten batzorde horretan. Txomin Larrinagak eskaini du bere burua eta Iera Arantzamendik ere bai, berak esan du beste guztiei galdetu eta gero, inork ez badu nahi parte hartu, berak parte hartuko duela.

### **4. Eskariak eta galderak.**

Batzordeburuak proposatuta gai bi hauek aztertu dira:



ONDARROAKO UDALA

3

## UDAL EUSKARA BATZORDEA

Batzar-zk.: 2012/4

Eguna: 2012-05-08

Hasiera-Amaiera: 18:45 - 19:50

Tokia: Batzar-gela 2

### Zinerako sarrerak:

Asteburuan zinean euskarazko animazio filma bat programatu du Bide-Onerako kudeatzaileak eta batzordeak, pentsatuta zuen bezala, zozketa egin nahi da. Zozketa ikastetxeetan egitea adostu da. Dena dela, batzordekideek uste dute horren zabalkundea Hitzaren bitartez egin behar dela.

### UEMAko ekitaldi bat Ondarroan:

Batzordeburuak azaldu du nola Ondarroako Udalak onartu zuen apirilaren 26ko Udalbatzarrean Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzea, eta hori dela-eta ekitaldi bat egingo dela Kafe Antzokian, ekainaren 7an (eguna), 19:30ean. Batzordeburuak esan duenez garrantzitsua da euskalgintzan ibilitako jendea egotea, eta gonbidapena egin die batzordeko partaide guztiei eta hauei guztiei: EHE, AEK, Ikastolaren sortzaileei, Hitza, Udal agintari izan zirenei UEMAn sartu ginenean 200an (Loren Arkotxa) eta euskara zinegotzi izandakoak.

Batzordeburuak azaldu du nola osatuko den ekitaldia: oihal dantza saio bat, EHE-k berbaldia, Kresala dantza taldearen saio bat eta bideo bat. Horren ondoren, argazki bat aterako da euskalgintzako partaide guztiekin eta amaieran luntx bat emango da.

### ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-03-27koa
- Euskararen sustapenerako Udalaren diru-laguntza deialdiko ebazpen batzordea osatzeko Udal Euskara batzordekide bi hauek izendatzea:
  - Iera Arantzamendi, Udal Euskara lantaldeko kidea (beste inork ez badu eskaintzen bere burua)
  - Txomin L. Aramaio, AEKren, Radixu irratiairen eta Kafe Antzokiaren ordezkaria.
- Aste honetan euskarazko zine emanaldirako 15 sarrera erostea eta zozketa egitea Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan (5na sarrera).
- Hurrengo batzar-egun hauek finkatu dira:
  - maiatzaren 30ean 10:00etan: Letren Jaialdiaren IV. edizioa antolatzeko.
  - 2012ko ekainak 12, 18:30ean: Udal Euskara Batzordea.

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua  
Leire Beitia

Idazkaria  
Maite Rey